



3 INGURUMENA

Bigarren eskuko azoka bihar Okendo plazan

Sanmarko mankomunitateko Merka2sanmarco azoka gure herrira iritsiko da bihar. Berrehabileren sustatzen duen azoka berezia goizeko 10:00etatik 14:00etara egongo da erdigunean. Herritarrek gauzak erosteaz gain, haien objektuak saltzeko aukera ere izango dute gordailu-salmenta zerbitzuarekin.

4 UDALA

Bailarako zerbitzuen elkarlana sustatuz

Asteartean egin zen ohiko udalbatzarrean bailarako enplegu sailen elkarlanerako protokoloa onartu zuten alderdiek.



6 KIROLA

LOKEko judokak bikain Espainiako borroka txapelketan

Herriko taldeko Amaia Curiel eta Oscar Garrido gazteek borroka olinpikoko junior eta eskolarteko Espainiako txapelketan brontzezko dominak eskuratu zituzten lehengo asteburuan.

Atleta gazteak indartsu

Kadete mailako Espainiako txapelketan izango dira LOKEko Ane Galardi, Itoitz Rodriguez, Eneritz Busto eta Maria Eugi

LOKE taldeko atletismo saileko lau kadeteak aste-buru honetan Oviedon antolatuko den Espainiako txapelketan parte hartuko dute. Taldearentzat emaitza paregabea da lau gazteak bertan egotea, baina egindako lan guztiak txapelketan fruitua eman eta Espainiako txapelketatik dominak ekartzea espero dute.

Ane Galardi, Itoitz Rodriguez, Eneritz Busto eta Maria Eugi LOKEko atletak Oviedora doaz asteburuan. Hitzordu garrantzitsua dute bertan, kadete mailako Espainiako txapelketa.

Larunbatean sailkapen saioak izango dira eta bertan lehiatuko dira Ane, Itoitz eta Maria; igandean, Eneritzek altuera proba izango du eta finalen eguna izango da. Eta Oscar Goikoetxeak entrenatzaileak aurreratu digunez, Itoitz Rodriguez eta Ane Galardi dominen lehiaren egon daitezke.

Domina aukerak

Eta, batez ere, domina lortzeko aukera gehien dituen Itoitz da.

600 metroetako proban parte hartuko du usurbildarrak. Egun neguko denboraldiko sailkapenean lehenengo postuan izan da.

Hala ere, bere lasterketan lehia handia izan dezakeela aurreratu digu entrenatzaileak.



Ane Galardi, Eneritz Busto eta Maria Eugi kadete mailako Espainiako txapelketako prestakuntzako azken entrenamenduan.

“Oviedoko pista Donostia-ko baina txikiagoa da eta atleten artean bultzadak egon daitezke. Ezin dugu esan Espainiako txapelketan izango denik, baina duen markarengatik domina lortu dezakeela uste dugu,” azpimarratu du Goikoetxeak.

Hala ere, aipatu legez, Ane Galardi herritarrak ere izan dezake zer esana.

Ane 60 metroko lasterketa eta luzera jauziko probetan lehiatuko da. Eta azken proba honetan ditu aukera gehien.

“Luzera jauziko denboraldiko sailkapenean 5. postuan dago oraintxe bertan. Lehiaketa ona eginez gero, dominen lehiaren egon daiteke. 60 metroko proban parte hartze- ra doa,” aipatu digu Goikoetxeak.

Esperientzia

Bi atleta hauekin batera, Maria Eugi eta Eneritz Busto gazteak izango dira Oviedoko pistaren. Hauen kasuan, esperientzia lortu eta marka hobetzeko balioko diela aipatu digu entrenatzaileak.

Maria 300 metroko proban izango da. “Justu sailkatu zen, baina marka ona egin dezake, sasoi betean dago eta”.

Bestalde, Eneritz Bustok altuera proban parte hartuko du. Bere lehen urtea da maila honetan eta oraindik beste bi urte ditu bere teknika garatu eta hobetzeko.

Horregatik “meritu handia du honelako txapelketa baterako sailkatzea,” aipatu digu LOKEko entrenatzaileak eta “Oviedora ikastera doa” atxiki du.

Herriarentzat garrantzia

Honetaz gain, Oskar Goikoetxea entrenatzaileak “garrantzitsua da taldearentzat eta herriarentzat lau atleta maila honetako txapelketa batean izatea. Lasarte-Oriako eta Usurbilgo gazteak dira, ez hiri handi batekoak” azpimarratu nahi izan du.

Era berean, aurrean Espainiako txapelketara atleta gehien aurkeztuko dituen Gipuzkoako klubak dela ere aipatu du. “Esate baterako, Tolosako klubak bat edo bi ordezkari izango ditu txapelketan. Baina uste dut baten bat Donostiakoa dela”.

Amaitzeko, bere atletiek egindako lanarekin pozik dagoela eta txapelketan haien onena ematea espero duela aipatu digu entrenatzaileak.



**MEKANIKA
MANTENIMENDUA**

Diseina ezazu zure etorkizuna!

**HEZI
BIZI
HAZI**





**ELEKTRIZITATEA
ELEKTRONIKA**

**IKASTETXEA
IKUSTEKO AUKERA**

PUERTAS ABIERTAS



**DISEINUA
INPRIMAKETA**

SALESIANOS urnieta
SALESIARRAK

MARTXOAK 22 MARZO
MAIATZAK 31 MAYO

17:00 · 20:00
www.salesianosurnieta.com
943 551 789

INGURUMENA

Berrerabilera sustatzen

Merka2sanmarcos bigarren eskuko azoka iritsiko da larunbata goizean, 10:00etatik 14:00era, Okendo plazara

Sanmarko Mankomunitateak gauzen berrerabilera sustatu nahian, merka2sanmarcos bigarren eskuko merkatuaren bosgarren edizioa antolatu du. Mankomunitateko hainbat herrietan izan da dagoeneko eta larunbatean, martxoaren 17an, gure herrian izango da.



Bigarren eskuko gauza ugari aurkitu ahaliko dira larunbatean Okendon izango den azokan.

Liburuak, diskak, jostailuak, altzariak... edozein gauza aurkitu ahaliko da larunbatean Okendo plazan izango den Merka2sanmarcos bigarren eskuko azokan.

Bigarren eskuko azoka Sanmarko mankomunitateak hondakinak murrizteko eta prebenitzeko duen ekintza planaren barruan txertatua dago eta gure mankomunitateko hainbat herrietatik pasa da dagoeneko.

Azokak hiru helburu nagusi ditu: erabilitako objektuen berrerabilera indartzea, bigarren eskuko merkatuaren duintasuna handitzea eta hiri-hondakinak prebenitzeko aukera ezberdinen inguruan herritarrak informatzea.

Azokan postu desberdinetan erositakak egiteko aukera izateaz gain, gordailu-salmen-

ta zerbitzu bat izango da.

Antolakuntzak jakin arazten duenez gordailu-salmenta postu honetan herritarrek erabilitako gauzak utzi eta salitzeko aukera dute, arropa izan ezik.

Horretarako, merkatu egunean bertan 9:00ak eta 10:00ak bitartean utzi behar dira saldu nahi diren objektuak. Egun bereko 14:00etan, itzuli behar dira herritarrak dirua edo saldu ez dena jasotzera.

Gauzak erabiliak eta egotera onean egon behar dutela eta gehienez 15 objektu hartuko direla azpimarratu dute antolatzaileek.

Antolakuntzak ez du bere gain hartuko utzitako objek-

tuetan gerta daitezkeen galera edo kalteak.

Era berean, Sanmarko mankomunitateko postua izango da bertan herritarrei ekimen derberdinei buruz informatzeko.

Eguraldi txarra eginez gero, Loidi-Barrengo pilotalekuan egingo litzateke azoka.

Udalaren gonbidapena

Lasarte-Oriako Udalak herritarrei azokan parte hartzeko deia luzatu die, berrerabilera zabaltzen laguntzen duten ekimenak erabat positibo jotzen ditu eta. Udalaren ustez zakar gehiegi sortzen da egun eta jokabide aldaketa bultzatuko du.



TOMAS ARRUTI

SENIDETASUNA

Calçot jan paregabea

Laugarren urtez, Lasarte-Oria eta Gironako Porqueres herriko lagunaren arteko anaitasuna ospatu zen Buruntz-Azpi elkartean, larunbatean.

Giro ezin hobean hogeita hamar herritarrek parte hartu zuten Basaundi bailarako elkartean antolatutako bazkarian eta horien artean, Porqueres herrixkako Josep, Maria, Enric eta Eva lagunak egon ziren.

Bazkariaren berezitasuna, Kataluniako lagunek parrilan egindako calçot edo tipulina jana dastatu zela. Antolatzaileek jakin arazi digutenez, "Gironako lagunek 350 calçot ekarri zituzten eta guztiak jan genituen". Eta hauen ostean, Buruntz-Azpi elkarteko lagunek egindako arkume errea.

FORU ALDUNDIA

Udalekuetan izena ematea

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien artean antolatzen den udaleku programan izena emateko epea ireki da.

Hiru lurraldeetako 7 eta 13 urte bitarteko umeei zuzenduta dago ekimen hau. Bertan parte hartzen duten umeei jolaserako, dibertsiorako eta bizikidetasunerako leku bat eskaini nahi zaie, beren gozamenarako eta autonomia pertsonala finantzatzeko.

Eskaera banaka eta taldeka egin daiteke (taldeko 3 neska/mutil gehienez) eta plaza lortzeko orduan aukera berdintasuna bermatzearren, ume bakoitzeko eskaera-orri bakarra onartuko da.

Zozketan izena emateko bi bide daude batetik, Lasarte-Oriako Gazte Informazio Bulegora, Manuel Lekuona kultur-etxeko, 3. solairura hurbildu edo interneten, gipuzkoagazteria.net/udalekuak/ orrialdean egitea.

Inskribatzeko azken data martxoaren 23a da eta plaza guztiak apirilaren 3an jendearen agerian eta notarioaren aurrean egingo den zozketan banatuko dira.

San Pedro jaietako egitarauetan lanean

San Pedro jaietarako hiru Shilabete geratzen dira eta jai egitaraua finkatzeko ordua da. Aurtan parte hartze prozesu bidez, herritarrek eta taldeek haien proposamenak egin dezakete eta haien ekarpenekin guztien San Pedro jaiak osatzea lortu nahi du Udalak. Gauzak honela, aste honetan Manuel Lekuona lau saio prestatu ditu egitarauari buruz hitz egiteko.

Astelehenean prozesuari hasiera eman eta ekimenaren aurkezpena egin zuten Taxio Arrizabalaga festetako batzorde buruak eta Xabier Goitia festetako teknikariak eta Alaitz Mendizabal parte-hartze batzorde buruak eta Larratiz Sarobe parte-hartze teknikariak.

Era berean, ia zokoa jaietako egitarauak zuen ekintzen banaketa eta hauek aurrekon-



Egunero herritar taldea hurbildu da Sanpedroetarako proposamenak ematera.

tuan zuten ehunekoa aztertu eta aurtengo aurrekontuei eta taldeek izan ditzaketen diru laguntzei buruz hitz egin zuten.

Egitarau nagusiko hainbat ekitaldietaz mintzo eta hauek jaietan izan dezaketen lekua

aztertu zuten hitzaldi aretoan bildu diren herritarren artean.

Prozedura bera izan zuten asteazkenean eta atzo egin ziren musika eta haurren ekitaldi bilerak ere. Gaur, 18:30ean, kultura arloko ekitaldien txanda izango da.

EUSKARA

Eguzki-loreak Muntteri-AEKn

Muntteri-AEKko ikasleak paperezko eguzki-loreak egin zituzten asteazkenean euskaltegiak antolatu zuen eskulan tailer-rean.

Bi txandatan, bata goizeko 9:30ean eta bestea arratsaldeko 19:00etan, guraize, paper eta kola hartu eta eguzki-loreak egiteko hostoak moztu eta itsatsi zituzten euskara praktikatzen zuten bitartean.

Honetaz gain, eguzki-lorean inguruko bitxikeriak ezagutu zituzten ikasleek, esate baterako, euskal mitologiaren arabera, eguzkiaren itxura duen lore hau etxe, baserri eta bordak sorgin eta izpiritu-izaki gaiztoez babesteko erabiltzen zela.



Muntteri-AEK-ko ikasleek ekileak egiten ikasi zuten asteazkenean.

Buruntzaldeko udaletako enplegu zerbitzuak elkarlanean

Ohiko udalbatzarrean bailarako enplegu zerbitzuen elkarlanerako protokoloa onartu zen

Ohiko udalbatzarra burutu zen asteartean. Hirigintzari dagozkion zenbait zuzenketaz gain, bailarako enplegu zerbitzuetako elkarlanerako protokoloa onartu zen. PSE-EEk mozioa aurkeztu zuen garraio zentroaren inguruan udal taldeen babesa jasotzeko. Hauek ordea, honen berri soilik prentsatik izan zutela salatu nahi izan zuten.

Maidar AZURMENDI

Enplegu alorrean Buruntzaldeko udalak lanean ari dira guztien baliabideak erabilia enplegua, industria eta turismoa bailaran garatzeko. Honetarako protokolo bateratu bat onartu da.

Gorka Lizarraga gizarte zerbitzu eta enplegu batzorde buruak udalbatzarrean aurkeztu moduan, lan hau gizarte zerbitzuetako langileek burutuko dute eta etorkizunean entitate propioa izango duen Garapen Agentzia moduko bat sortzea izan daiteke elkarlan honen emaitza.

Aurretik, bailararen diagnostiko sozio-ekonomikoa burutuko da lanaren ardatzak finkatzeko. Proposamena udala osatzen duten alderdi guztien onarpena jaso zuen.

Protokolo honetan jasotzen da; "Gure lurraldean Sustapen Ekonomikoa eta Enplegu gaitan egoeraren diagnostikoa egitea. Lankidetzatik eta elkarrekin jardunaz, enplegu eta sustapen ekonomikoko egitasmoak garatzea, gure lurraldeak dituen behar eta aukeren diagnostiko bateratu batetik abiatuz. Eskualde mailako egitasmoen kudeaketan zalutasuna bermatzea eta baita horien zuzendaritza politikoa dagokion laguntza teknikoarekin. Sustapen Ekonomikoa eta Enplegu gaitan lankidetzatik eta elkarlana izatearen egokitasuna aztertzea

horretarako egitura jakin bat osatuz, zeinak zehaztu beharreko nortasun juridikoa eduki bailezake, eta beti ere eskualdeko udalerrri ezberdinen gurari eta interesak bateratzearen".

Hirigintzan zuzenketak

Bestetik hirigintzari dagozkion hainbat zuzenketa onartu ziren Udalbatzarrean.

Lehena Zatarain A-36 deritzon urbanizazio lanek behin betiko onspena izan zuten PSE-EE eta Plataformakoen aldeko bozkei esker. Berdina gertatu zen Zabaleta Berriko proiektuan proposatutako aldaketarekin.

Goiegi Gora deituriko lanetan hotelaren eraikitzea dela eta behin behineko onspena eman zitzaion udal gobernuak proposatutako aldaketari.

Izan ere, bigarren ingurubidearen harira eraikin enpresak hotelak altuera gehiago izateko proposamena egin zuen, zazpi edo zortzi solairu izatea.

Honakoa udal gobernuarentzat gehiegizkoa da eta horrela lau solairutara mugatzeko proposamena aurrera atera zen EAJ, Plataforma eta Bilduko ordezkarien bozkekin. Hala ere, Bildu baita EAJk ere proiektu beraren kontrako iritzia zutela azpimarratu nahi izan zuten, aurreko udal gobernuak onartutako proiektu bat dela azalduz.

Honekin batera Jesus



Udalbatzarrean ordutegia aurreratzegatik kontuak eskatu zituen PSE-EEko Jesus Zaballosek.

Zaballos sozialisten bozemaileak EAJri galdetu nahi izan zion bere garaian ea zergatik ez zuen proiektu honen aurkako alegaziorik aurkeztu. Estitxu Alkorta beti aurka bozkatu zutela erantzun zion.

Zaborra jasotzea

Era berean, FCC enpresarekin zabor bilketa zerbitzua luzatzea onartu zuen udalbatzarra. Ana Isabel Prieto Zerbitzuetako arduradunak azalduenez, luzapen kontratu honetan hainbat izan dira egindako hobekuntzak besteak beste, jai egun zehatz batzuetan erdigunetik zaborra jasotzera pasako direla adostu da, adibidez inauterietan.

Horretaz gain, zerbitzuaren kostua 24.000 euro inguru merketu ahal izan da abenduan burututako esperientziaren arrakastaren ondorioz.

Abenduan larunbatetan lur-azpiko edukiontzi guztiak jaso beharrean txandaka jaso izan dira. Ikusita bizilagunentzat ez dela arazorik izan hala egingo da aurrerantzean kos-

tuak murriztu aldera.

Garraio zentroa herrian

Jesus Zaballos PSE-EEko bozemaileak Garraioaren Zentro integrala herrian jartzeko Eusko Jaurlaritzak egindako eskaera aurkeztu zuen.

Mozioan udalbatzarrek zentroaren sorrera bultzatzeko adierazpenarekin bat egin eta bere garapenean laguntzeko prest agertzeko eskatu zuen PSE-EEko zinegotziak.

Otsailaren 27an sinatu zuten Iñaki Arriola, Etxebizitza, Garraio eta Lan Publiko kontseilariak eta Gemma Zabaleta, Enplegu eta Gizarte Gaietako kontseilariak aipatutako zentroaren sorrera bultzatzeko adierazpen instituzionala.

Jaurlaritzak Lasarte-Oriako Lanbide zentroa, Garraio arloko Formakuntza, Ikerketa eta Garapen Zentro bihurtzeko egitasmoa bultzatzeko arrazoiak txosten batean bildu ditu.

Bildu, EAJ eta Plataformak euren harridura azaldu zuten izan ere, Eusko Jaurlaritzatik

ez zaio udalari inongo informaziorik eman gai honen inguruan.

Lan erreforma berria

Honetaz gain, Bilduk Espainiako gobernuak martxan jarritako lan erreformaren aurkako mozioa aurkeztu zuen.

Honi emendakinak egin zizkieten PSE-EEk eta EAJk. PSE-EErena azkena izanda, aztertu eta onartua izan zen. Lan erreforma hau langileen eskubideen kontrako erreforma dela argudiatu zuen alderdi sozialistak.

Bukatzeo, hainbat gairen inguruan galdetu zuen Jesus Zaballosek besteak beste Okendo plaza altxatu behar izatearen inguruan. Nerea Sanchezek argitu moduan, plaza osoa ez da altxatu beharko baina ez dago argi koadrorik bertan, "ez zen aurrekusi" eta plazan burutzen diren kontzertu eta emanaldi ezberdinetarako beharrezkoa da. Irtenbiderik erraz eta egokiena aztertzen ari direla azpimarratu nahi izan zuen zinegotziak.

ANAIAK

JANTZI-DENDA

ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362386



Aste Santuan ongi pasatzeko aukera

Zientzien txokoa eta Gazte astea antolatu ditu Ttakun K.E.-k oporraldi hauetan ez aspertzeko

Zientzia eta natura izango dira nagusi Ttakun kultur elkarteak Aste Santuan antolatu duen haur eta gazteen txoko eskaintzan. Txikienek Aste Santuko Zientzia Txokoa izango dituzte; gazteenek berriz, hiru egunetako txangoa dute Aiako Harriak parke naturaleko Arritxulo aterpetxean. Honela, hamaika abentura eta bizipen izateko aukera dute etxeko gazteenek.

Nerea EIZAGIRRE

Aste Santua dator eta herriko txiki eta gazteek oporrak dituzte. Etxean asper-asper egon beharrean Ttakun kultur elkarteko Aisia sailak bi aukera eskaintzen dizkie. Batetik txikiengentzat Zientzien txokoa eta bestetik gazteentzat, Gazte Astea.

Aste Santuko txokoa

Zientzia eta esperimentuak izango dira nagusi aurten Aste Santuko oporretako Zientzien txokoa.

2 urte eta 8 urte bitarteko haurrek goizez, 9:00etatik 13:30era, ederki gozatu ahal izango dute apirilko bi asteetan txokoetan egingo dituzten ekintza guztiek.

Etxeko txikiak zientziagaien ezaguerak trebatzeko

aukera izango dute txokoetan, izan ere, zientzilari lanak egin beharko dituzte.

Lehenik laborategi bereziari izena jarriko diote eta haien esperimentuetako beharrezkoak izango dituzten elementua guztiak sortuko dituzte.

Honetaz gain, tailer bereziak izango dituzte, hala nola, ura, natura edo koloreekin esperimentu liluragarriak egingo edo pentsatzeko lagungarriak diren jakiak ezaizteko jakituria tailerra izango dute.

Era berean, gazteentzat Eureka! Zientzia museora irteera egingo dute. Bertan zientziari buruzko bitxikeriak eta jolasen bidez hainbat kontzeptu ikasi ahal izango dituzte modulu interaktibo edo Txiki-klik! txokoa.

Azken egunean, berriz,



Aste Santuko txokoetako haurrak ez dira aspertzeko, tailer ugari eta Eureka! museora irteera. Iaz hondartzan izan ziren.

graduazio festa handia izango dela ere aurreratu digute antolatzaileek.

Eureka!-ra irteera

Ttakuneko aisia sailak jakin arazi duenez, Eureka! Zientzi museorako irteera hau irekia izango dela.

Honetan, HH4 eta LH2 maila arteko haurrek parte hartu dezakete. Goiz osoko irteera izango da, 10:00etan Erribera kaleko lokaletik abiatuko dira eta 13:30ean, Zumaburuko autobus geltokian jaso beharko dira haurrak.

Ttakuneko bazkideek 8 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 10 euro.

Naturan murgiltzen

Hala baina, LH3 eta LH6 mailako gazteek ere badute plana, Aiako harriak parke naturalera hiru eguneko txangoa. Apirilak 2,3 eta 4an izango da eta Oiartzungo Arritxulo aterpetxean egingo dute lo gazteek.

Mendi irteera, tailer desberdinak, bertso antzerkia, musika eta sorpresaz betetako

gaubelak eta Arditurri meategia bisitatuko dute gazteentzako.

Irteera apirilak 2an 11:00etan izango da jubilatuen geltokitik eta itzulera apirilaren 4an izango da 13:00etan.

Antolatzaileek jakin arazi dutenez, lehenengo eguneko bazkaria eraman behar dute gazteentzako.

Izena ematea

Gauzak honela, Aste Santuko Txokoetan izena ematea Ttakun K.E. egoitzan, Geltoki kalea 4 behean, egin behar da.

Lasarte-Orian errolatutako haurren gurasoek bi asteengatik 88 euro ordaindu beharko dituzte edo 44 euro aste batengatik; errolatuak ez dauden haurrenek, aldiz, bi asteengatik 132 euro edo 66 euro aste batengatik.

Ordainketa bulegoan bertan egin daiteke txartelarekin edo kontu korrante zenbaki honetan, 2101 0048 25 0010089696, haurren izenean transferentzia bat egingo da. Diru sarreraren ordain agiria bulegora eraman behar da.

Antolatzaileek adierazi dutenez, izena ematen duten lehen 40 haurrentzat egongo da lekua. Inskribatzeko azken eguna martxoaren 29a izango da.

Gazte astean parte hartzeko, berriz, 943 371 448 zenbakira deitu edo Ttakunera hurbildu behar dira interesatuak.

Ttakuneko bazkide ez direnek 45 euro ordaindu behar dituzte, bazkideek 42 euro.

Ordaintzeko moduei dagokionez, txokoan antzerkia, bulegoan txartelarekin edo kontu korrante zenbakian ordainketa egin daiteke.

Diru-sarreraren ordainagiria aurkeztu behar da bulegoan eta Osakidetzako zenbakia ere beharrezkoa dela azaldu dute antolatzaileek.

Izena emateko azken eguna martxoaren 28a izango da, hau barne.

Eta egun horretan bertan, 18:00etan osasun zentroko 2. solairuan Gazte astearen! nondik norakoak azaltzeko gurasoekin bilera egingo dela jakin arazten dute.



Herriko gazteek Arditurri meategia eta honen inguruak ezagutuko dituzte.



Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

BORROKA ETA JUDOA.-

LOKEk Espainiako txapelketatik bi brontze

Esteban Martinez Amaguadalupeko taldearekin izan zen junior mailako Espainiako Ligan

LOKEko judokak orain ere dominak lortu dituzte. Lehenago asteburuan Granadan izan zen Borroka olimpikoko Espainiako txapelketako podiumean izan ziren Amaia Curiel eta Oscar Garrido. Honetaz gain, Esteban Martinezek junio mailako Espainiako Ligan parte hartu zuen Hondarribiko Amaguadalupeko taldearekin eta alebinek Eskola Kiroleko sailkapen txapelketa izan zuten Tolosan.



Amaia Curiel, eskubitik hasita bigarrena, junior mailako brontzezko domina eskuratu zuen Granadan. ASTURIETAKO PRINTZERRIKO FEDERAZIOA

Nerea EIZAGIRRE

LOKEko Amaia Curiel, Mario eta Oscar Garrido borroka olimpikoko junior eta eskolarteko mailako Espainiako txapelketan izan ziren lehenago asteburuan Granadan eta bi brontzezko domina ekarri zituzten bertatik.

Junior mailan, Amaia Curiel ekarri zuen 63 kilo mailan.

Bere mailan bost parte hartzaile zeudenez, ligaxka moduko lehiaketari aurre egin behar izan zion Amaiak.

Honela, lau borroka izan zituen lasarteoriatar gazteak. Lehenengoa erraz irabazi zuen, bigarrenean gerora Espainiako txapelkun izango zen Huarte nafarraren aurka

galdu zuen, hirugarrena ere galdu zuen eta azkenekoan irabazle izan zen. Norgehiagoketan lortutako garaipenekin hirugarren postua eskuratu zuen azkenean Curiel.

Eskolakoarteko txapelketan Oscar Garrido gazteak ere hirugarren postua lortu zuen, 85 kiloko mailan.

LOKEko gazteak final zortziren eta laurdenetako borrokkak erraz irabazi zituen. Final erdian Adrian Valero valentziarraren aurka galdu zuen eta hirugarren postuko norgehiagoka izan zuen Madrildigo Jakub Andrakaren aurka. Honetan ere, erraz gailendu zuen herritarra eta brontzezko domina ekarri zuen herra.

Honetaz gain, junior mailako

74 kiloko pisuan, Mario Garrido lehiatu zen. Mariok bere lehenengo borroka galdu zuen eta ez zuen aukerarik izan. Honela hamaikagarren postuan amaitu zuen txapelketa.

Espainiako Liga

Bestalde, LOKEko Esteban Martinez Hondarribiko Amaguadalupeko taldeko juniorrekin lehiatu zen Villaviciosa de Odon-en jokatu zen judoko

Espainiako Ligako bigarren jardunaldian eta lehenengo postua eskuratu zuten.

Bigarren saio honetan J.C. Sotillo, J.C. San Sebastian eta Brunete-ren aurka izan ziren norgehiagokak eta hirurak irabazi zituzten. Martinezek garaipen horretan lagundu zuen, bere hiru borroketan arerioei gailendu baitzitzaien.

Alebinak

Gainera, taldeko txikienek,

alebinek, Eskola Kiroleko sailkapen saioa izan zuten Tolosan, larunbatean.

Bertan, Ander Garrido, Talib Vergara, Alex Saleta, Manu Revuelta, Garikoitz Mena, Beñar Arizeta, Unai Posadas, Iker, Pello Uranga, Henry Wergner eta Ibai Tamayo lan ona egin zuten eta maiatzaren 20an Hernanin izango den Gipuzkoako txapelketarako txartela lortu zuten guztiak.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

- Larunbata 17
Michelin, 10:00etan
Ostadar-Real Union Infantil txikiak, kopa
Michelin, 11:30ean
Ostadar-Touring
Jubenilen Ohorezko maila, igoera
Elorri, Alegi, 11:45ean
Aralar Intxurre-Ostadar I. infantila, kopa
Igartza, Beasain, 12:00etan
Beasain-Texas Lasartearra
I. Jubenila, kopa
Michelin, 13:00etan
Ostadar-Oiartzun
Infantilen Ohorezko maila, kopa
Michelin, 15:30ean
Texas Lasartearra-Landetxa
I. Erregionala, kopa
Matigoxotegi, 15:30ean
Kostkas Mirren Bihotza-Ostadar
Jubenilen Ohorezko maila, igoera
Matzada, Bera, 16:00etan
Gure Txokoa-Ostadar
I. Erregionala, igoera
Trintxer, Trintxerpe, 16:00etan
Trintxerpe-Texas Lasartearra
I. Jubenila, kopa
Michelin, 17:15ean
Ostadar-Sanse I. Kadetea, igoera

Iganganda 18
Michelin, 10:00etan
Ostadar-Sporting de Herrera
Alebinak, kopa

- Michelin, 11:15ean
Ostadar-Euskalduna Erregionala Gorena
Rezola, Aforga, 16:00etan
Añorga-Ostadar
Emakumezkoen Erregionala, igoera

ARETO-FUTBOLA

- Larunbata 17
Kiroldegia, 15:45ean
ISU Leihoak-Berrio Otxoa K.T.
Ortziri Euskal Liga
Santurtziko Udal kiroldegia, 16:30ean
Santurtzi-Buruntza K.T.Aldaz H.K.
Nazional III. maila

PILOTA

- Ostirala 16
Eskoriatza, 19:00etan
Eskoriatza-Intza
Udaberri txapelketa, eskuz binaka I. seniorra finalerdia

- Larunbata 17
Michelingo pilotalekua, 16:00etan
Intza-Hernani 3
Erendimendu txapelketa, eskuz binaka 2. urteko alebinak



JUDOA

- Larunbata 17
Villaviciosa de Odon, Madril, 9:00etan
LOKEko Oscar Garrido eta Fermin Balda judoka gazteek kadete mailako Espainiako Super Kopako saioa dute.

ATLETISMOA

- Larunbata 17
Oviedo, 15:00etan
LOKEko Ane Galardi, Itoitz Rodriguez, Eneritz Busto eta Maria Eugi atletak kadete mailako Espainiako txapelketan parte hartuko dute.
Beasain, 16:00etan
Herriko korrikalari talde bat Arriarango I. Mendi lasterketan izango da.

- Iganganda 18
Oviedo, 9:30etan
LOKEko Ane Galardi, Itoitz Rodriguez, Eneritz Busto eta Maria Eugi atletak kadete mailako Espainiako txapelketan parte hartuko dute.
Aginaga, 11:00etan
Herriko korrikalari talde batek Aginagako IV. mendi lasterketan parte hartuko du.

- Lekunberri, 12:00etan
Herriko korrikalari talde batek 24. Lekunberriko legoa Txikito de Arruiz Oroimenezkoa proban parte hartuko du.

IGERIKETA

- Larunbata 17
Irun, 10:00etan eta 17:00etan
Buruntzaldea IKT-ko junior promesa eta absolutu mailako gazteak Neguko Absolutuen Txapelketan izango dira.
Zarautz, 16:00etan
Buruntzaldea IKT-ko master mailako igerilariak Zarautzeko II Master Sarian izango dira.
Iganganda 18
Irun, 10:00etan eta 17:00etan
Buruntzaldea IKT-ko junior promesa eta absolutuak Neguko Absolutuen Txapelketan izango dira.
Zarautz, 10:00etan
Buruntzaldea IKT-ko master mailako igerilariak Zarautzeko II Master Sarian izango dira.



TXIRRINDULARITZA

- Larunbata 17
Azpeitia, 16:00etan
Bazpi txirrindulari eskolako eta herriko jubenek XXXI. Loiola Sarian parte hartuko dute.
Usurbil, 16:30ean
Bazpi txirrindulari eskolako eta herriko infantilek Usurbil Sarian parte hartuko dute.
Iganganda 18
Biyak Bat egoitza aurrean, 9:00etan
Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak Ametzetara egingo du irteera.
Eibar, 10:30ean
Bazpi txirrindulari eskolako eta herriko kadeteek XXXIII. Abascal Oroimenezkoan parte hartuko dute.

ERRUGBYA

- Iganganda 18
Michelin, 9:00etan
Beitzak Ostadar Jalai eskolako haur eta gaztetxoek entrenamendua dute.

BOLO-JOKOA

- Iganganda 18
Aia, 10:00etan eta 16:30ean
Ostadar SKT-ko bolo jokalariek Lehendakari txapelketako hirugarren saioa dute.

Agenda

Ostirala 16, Manuel Lekuona kultur-etxea, 20:30ean



Erljioa eta dantza

Lasarte Oriá Dantzan Zirkuituaren barruan, Act of god dantza garaikideko ikuskizuna eskainiko da. Ertza dantza eta antzerki taldeak Saramagoren Cain liburuan oinarrituta dagoen lana taularatu du. Harkaitz Cano lasarteoriarren testua eta Xabier Erkiziaren musika entzuteko aukera izango da Manuel Lekuonan. Gainera, Ander Lipus aktorearen laguntzaz alde dramatikoá landu dute. Sarrera online erosita 5 euro balio ditu eta leihatilan, 6 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Larunbata 24, 18:30ean

"Aitona Matias" haurrentzako txo-txongilo emanaldiaz gozatzeko aukera. Sarrera online, 3 euro; leihatilan, 3,40 euro. Euskaraz.



Ipuin-kontalaria

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Asteartea 27, 18:00etan

Haur liburuen eguna dela eta, Ingu-ma taldeak "Bidaian" kontaketa eskainiko du. 5 eta 6 urte arteko haurrei zuzendua dago.

Lasarte-Oria Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 18, 17:00etan

Haurrentzako zinearen barruan, "El Cascanueces" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,40 euro.

Igandea 18, 19:00etan

Helduen zinema atalean, "La piel que habito" filma ikusgai izango da, Oken-do Zienama taldearen eskutik. Gaztelaniaz. Sarrera, 5,50 euro.

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Osteguna 22, 21:30ean

Laburbira film laburren zirkuitua herrira iritsiko da, honetan 8 film labur eskainiko dira.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 25, 17:00etan

Haurrentzako zinearen barruan, "Fucsia, la minibruja" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,40 euro.



Musika

MENDI KAFE ROCK
Ostirala 16, 20:00etan

The Back Tracks taldearen kontzertua, Kultur kalea zikloaren barruan.

ABEND KAFE-ANTZOKIAN
Ostirala 16, 23:45ean

"Las culebras" eta "Kalean" taldeen doinuak entzun ahal izango dira Rock gauean. Sarrera aurretik 10 euro eta egunean bertan, 12 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 30, 19:00etan

Lasarte Oriá Musika atalaren barruan, "KantaJimJazz" taldearen kontzertua izango da.

Antzerkia

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Ostirala 16, 22:30ean

Aldatzen laguntzen antzerki taldeak "Ispilua" antzezlan eskainiko du. Euskaraz.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Martxoan zehar

Rudy artistaren "Ibilbidea Euskal herrian zehar" margolanen erakusketa ikusgai dago. Koadroak salgai daude.



Bestelakoa

OKENDO PLAZA
Larunbata 17, 10:00etatik 14:00etara
MerkaZsanmarkos bigarren eskuko azoka izango da. Euria eginez gero, Loidi-Barrengo pilotalekura aldatuko da.

Herritarren txokoa



Eragindako sutea Kalbario bidean

Lasarte-Oriako herritar batek jakin arazi digunez, lehengo asteburuan, larunbata gauean, goizeko hiru edo laurak aldera, Kalbario bidean, Lagun Aro eta San Pedro parrokia arteko kalekkan aparkatua zuen motorrari su eman zioten.

Udaltzainen erantzunari esker, motorrak ez zuen kalte handirik izan. Argazkian ikus daitekeenez, eskulekua eta atzerako ispiluetako bat erabiltzaitz geratu dira. Jabeak eskulekuan zituen babes batzuri su eman zietela adierazi digu.

Herriko udaltzainekin harremanetan jarri gara gertakizunari buruz jakiteko. Adierazi digutenez, sua antzeman eta haien postuan duten suitzalgailu batekin iraungi zuten. Suari dagokionez, eragindako sua izan zela aipatu dute.

Herritarren batek ekintza ikusi balu, udaltzaingoetara hurbildu eta honen berri ematea eskertuko lukete.

Eskutitza

Euskaraz bizi! eguna Donostian

Estatu batekin, agian, euskara ez da salbatuko; gabe ziur ezetz. Hala zioen joan berri zaigun Txillardegik. Hain zuzen ere, berak sortu zuen Euskal Herrian Euskaraz elkarteá, euskararen alde lan izugarria egin duena eta hilaren 17an, larunbatez, Donostian festa erraldoia antolatua duena.

Egun osoko egitaraua prestatu du EHEek; goizean Trinitate plazan Porrotx eta Bonberenea Txaranga izango dira. Hizkuntza jokabideen taile-rra egingo da San Telmo aretoan eta ondoren bakarrikzeta siaok.

Eguerdian Konstituzio plazan ehunka laguntzako herri bazkaria eta kantu jira egongo dira.

Arratsaldean Nazio manifestazioa burutuko da Bulebarretik hasita Euskalduna naiz eta harro nago lelopean.

Ondoren, Patxaranga alde zaharreko kaleetan barna ibiliko da eta bukatzeko iluntzean, Trinitate plazan, Skakeitan, 3gabe2 eta Betagarri taldeek joko dute.

Guk ere euskaraz bizi nahi dugulako eta euskaldun izateaz harro gaudelako, atxikimendua eman nahi diogu EHEk egun honetako plazaratutako manifestuari eta bestalde, deia egin nahi dizuegu herritar guztieki hilaren 17an Donostiara bertaratzeko.

Euskarak behar gaitu.

Akelarre Gazte Kolektiboa

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Amaia Gonzalez Dantzaria

“Aurten ez geneukan saririk eskuratzeko itxaropenik”

Europako Areto Dantza txapelketaren ondoren, orain hasten da txapelketa garaia Amaiarentzat. Hurrengo erronka, Kantabriako txapelketa izango da hiru aste barru.

Salsa modalitatean Europako txapeldun berriak dira Amaia eta bere dantza bikotea Jose Mari Orbegozo. Torremolinos-en ospatu den Europako Areto Dantza txapelketan gainera dantza konbinatuko bigarren saria ere eskuratu du lasarteoriatarrek. Bosgarren aldia da Europa mailako lehen sari bat eskuratzen dutela.

Maidar AZURMENDI

Bosgarren aldia da Amaia Gonzalez Caballero dantzariak Europako txapelketik lehen sari bat ekartzen duela. Bere dantzari ibilbidean jasotako sariak asko izan arren, Europa mailako hauek bereziki hunkitzen dute. Urduritasun eta lan gogorraren ondorio direla aitortzen du eta lehiatzen jarraitzeko indarra ematen diotela.

Bosgarren aldia da Europako txapelketatik sariarekin bueltatzen zaretela...

Bai. Gehiagotan parte hartu izan dugu baina bosgarren urtea da lehen sari batekin bueltatzen garelako kasu honetan Salsa modalitateko Europako txapeldun izan gara eta txapeldunorde konbinatuan derituz dantza estiloan, honek tangoa, pasodoblea eta bals-a biltzen ditu.

Espero al zenuten irabazte?

Egia esan ez. Aurreko urtean pasodoble modalitatean lehen saria eskuratu genuenez, aurtengoa lehen sariarekin guren lehiatu arauak hala ezarri eta pentsatu genuen salsarekin saiatzea. Txapelketa honetan behin izan ginen salsa dantzatzen 1998. urtean eta orduan hirugarren izan ginen.

Txapelketa bera gogorra izaten al da?

Bai ia egunero lehiatu behar izan dugu. Indibidualki lehiatu behar da lehenengo, lehen hautaketa prozesua gainditu finalean egon ahal izateko. Ordu asko dira minutu gutxi batzuetan dantzatzeko.

Adibidez lehen egunean tangoan aritu ginen. Hautaketa prozesuan bigarren geratu ginen eta ondoren finalean bosgarren. Bals-arekin antzeko gertatu zitzaigun, hautaketa lehenak izan ginen eta gaueko finalean laugarren. Konbinadon, estatu mailan egindako txapelketan bigarren geratu

ginen hautaketan eta gauean berriz, laugarren izan ginen. Ikusten genuen beti hor gertatzen ginela, lehen bost bikoteen artean baina saririk ez genuela jasotzen.

Azkenean ez geneukan saririk eskuratzeko itxaropenik.

Urduri jartzen al zarete horrelakoetan?

Bai oso, tentsio asko jasatea da. Txapeldun ginela esatean, ezin dut deskribatu sentitu nuen. Oso hunkigarria izan zen. Egia da ere aurrekoa ikusita, oso lasai dantzatu genuela salsa, oso eroso sentitu ginen eta nik uste horrek eraginda izan zuela.

Beste bikote euskaldunik ba al zen?

Ez hemengo bikote bakarra ginen. Hemen bada dantzaren munduan ibiltzen den bikoterik eta dantzarako zaletasun handia dagoela esango nuke baina txapelketa mundua ezberdina da. Txapelketa aste osoa irau du eta gure kasuan ia modalitate guztietan lehiatzen gara. Hemen badaude oso bikote onak salsa dantzatzeko adibidez baina ez dute soilik kategoriatan lehiatzen baina bidaia egingo. Denboraz gain, dirua ere behar da horrelakoetan parte hartzeko.

Nik uste dut azkenean txapelketen munduan sartzen garenontzat dantza afizioaz gain, ogibide ere badela. Ondorioz, beste modu batean bizitzen dugu txapelketa bera baita dantza mundua ere.

Zer behar da txapelketa mundu horretan emaitza onak lortzeko?

Ondo dantzatzeko gain, badira garrantzitsuak diren beste faktore batzuk. Adibidez nire ustez oso garrantzitsua da dantza bikote egonkorra izatea. Entsegu ordu asko dira, bidaia, urduritasun eta tentsio oneak...hori guztia eramangarria izan dadin eta emaitza



onak lortzeko, bikoteak ondo egin behar du lan elkarrekin eta ondo ulertu.

Gure kasuan 1997. urtetik daramagu elkarrekin dantzatzen Jose Mari Orbegozo eta biok. Euskadiko txapelketa batean hasi ginen eta gaur arte.

Sariak jasotzean norbaitekin gogoratzen zara?

Familia eta nire ikasleei eskaintzen dizkiet irabazten ditudan sariak. Familia beti gogoan izaten dut. Lehen gurusoak etortzen ziren nirekin eta orain ahizpa da txapelketa txapelketa nirekin dabilena. Senarra ere egoten da Internet bidez txapelketak jarraitzen.

Orain hasten da txapelketa garaia ezta?

Erkidego mailako txapelketa zirkuitua egiten da eta bai orain hasten da, Europakoaren ondoren beti. Gu Euskadiko txapeldun izan gara bost alditan baina dagoeneko hemen ez da txapelketarik egiten, “Young Play”-n izaten zen. Erkidegoko txapelketa bat irabaztekoan gastu guztiak ordainduta dituzu datorren urteko Europa mailako txapelketan parte hartzeko. Gure

kasuan hiru aste barru Kantabriakoan lehiatuko gara.

Txapelketa askotan parte hartzen duzue?

Asteburutan dira eta nik larunbatetan klaseak izateaz gain, entseguak ere izaten ditut eta dena bertan behera uztea ez da beti posible. Txapelketa munduan mugitzen saiatzen gara baina neurrian.

Bestalde, entsegu ordu asko dira, ikastaro pila estilo eta azken tendentziak ezagutzeko. Adibidez txapelketak ere onak dira horretarako, ikusteko zein estilo, berrikuntza dauden ondoren zuk ikasi eta erakutsi ahal izateko.

Familiak nola darama?

Bueno haurrek nabaritzen dute nire falta. Mikelek 12 urte ditu eta behintzat ulertzen du egoera eta ohitu da. Zerbait irabazten dudanean ere gustatzen zaio, eskolan esaten du. Txikiak hiru urte ditu eta horrek bai ez duela ulertzen. Dantzarako zaletasunari dagokionez, semeak ez du ezer jakin nahi eta dirudi txikiari gustatuko zaiola baina auskalo, nahi dutena egitea, nik behintzat ez ditut behartuko.

Dantza garesti ateratzen al da?

Bai. Txapelketetan aritzeko bidaia etab ordaindu behar dira eta ez da merke ateratzen. Horretaz gain jantziak garestiak izaten dira. Soinekoak oso bereziak dira, neurria egiten dira. Askotan hainbeste diru ez gastatzeko soinekoak moldatu egiten ditut, gona luzatu, moztu, distira gehiago jarri... trikimailuak izaten dira jendeak lehen begiradan soinekoak ez ezagutzeko.

Nire jantziak politikak dira baina nahikoa apalak txapelketa munduan ikusten direnkin alderatuz.

Lasarte-Orian dantzarako zaletasunik ba al dago?

Bai egon badago. Hemen salsa eskolak asko eskatzen dira agian lekuak ere badaudelako hauek dantzatzeko. Ez dakit zergatik gizonak gutxiago dantzatzeko dute hemen Estatuko beste lekuetan baino. Ez dakit, nik uste dut hemengo gizonak lotsatiagoak direla. Nire eskolan mutil gutxi daude eta egin izan ditut eskaintza bereziak hauek erakarri nahian, baina ezer ez, hasten direnak azkenean lotsagatik uzten dute. Dena den dantzatzeko ikastea animatzen ditut. Gauza polita da bikotearekin egiteko edota lagunekin.